


## Euskal enpresek jarraitzen dute informazio teknologiaren ekipamenduak hobetzen 2010ean

### *Enpresen %69,9k badute Internet eta horietako ia erdiak web orria*

Eustaten datuen arabera, euskal enpresetako IKT- Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiek- hobetuz jarraitzen dute 2010eko hasieran. Gaur egun enpresa txikiek dituzte ehuneko hazkunderik handienak; izan ere, handietan ia denek badituzte ekipamenduak.

Hazkunde-erritmoa motelduz joan bada ere azken urteetan, ekipamenduen hobekuntza etengabea izan da; establezimenduen %76,5ek ordenagailua du, azken urtean ehuneko 0,5 puntu igo ondoren; Internet %69,9k dute, hazkundera 0,3 puntu izan delarik; eta posta elektronikoa %68,3k, 1,4 puntu hazi ondoren. Sakelako telefonoa 1,9 puntuz hazi da, eta erkidegoan gehien aurkitzen den IKT ekipamendua da; euskal establezimenduen %81,7k du.

**1. grafikoa: IKT ekipamenduen bilakaera euskal enpresetan (%)**



Iturria: EUSTAT. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta (IGI)-Enpresak

I Enpresen %33,9k web orria dute, azken urtean 1,5 puntuz hazi da. Internet bakarrik duten enpresak aintzat hartuz gero, %48,4ko ehunekoa dugu.

Lurraldeka ez dira oso esanahitsuak aldeak, baina Araban da teknologia hauen ezarpenik handiena; ondoren Gipuzkoan. Bizkaian txikixeagoak dira zifrak.

**10 enplegatu edo gehiagoko enpresek, astiroago, hobetu ere dituzte IKT ekipamenduak; hain zuzen ere ia iritsi dira baliagarritasun atarira, web orrietan izan ezik**

Ehunekoak askoz handiagoak dira 10 enplegatu eta gehiagoko enpresetan: %75,4k dute web orria; %98,1ek ordenagailua; %93,4k sakelako telefonoa, %96,2k Internet eta %96,6k posta elektronikoa.

**1. taula: IKT ekipamenduak dituzten establezimenduak, lurralde eta establezimenduaren tamainaren arabera. 2010 urtea**

|                       | Ordenagailu pertsonala |             | Posta elektronikoa |             | Internet    |             | Telefono mugikorra |             | Webgunea    |             |
|-----------------------|------------------------|-------------|--------------------|-------------|-------------|-------------|--------------------|-------------|-------------|-------------|
|                       | %                      | Aldakuntza* | %                  | Aldakuntza* | %           | Aldakuntza* | %                  | Aldakuntza* | %           | Aldakuntza* |
| <b>Euskal AE</b>      | <b>76,5</b>            | <b>0,5</b>  | <b>68,3</b>        | <b>1,4</b>  | <b>69,9</b> | <b>0,3</b>  | <b>81,7</b>        | <b>1,9</b>  | <b>33,9</b> | <b>1,5</b>  |
| Araba                 | 80,9                   | 2,9         | 71,6               | 3,3         | 73,4        | 2,4         | 84,0               | 2,4         | 35,6        | 0,9         |
| Bizkaia               | 73,9                   | 0,0         | 66,2               | 1,0         | 67,6        | -0,3        | 81,0               | 1,5         | 33,3        | 1,6         |
| Gipuzkoa              | 78,7                   | 0,5         | 70,2               | 1,5         | 72,2        | 0,6         | 82,0               | 2,4         | 34,1        | 1,5         |
| <b>Enplegu-geruza</b> |                        |             |                    |             |             |             |                    |             |             |             |
| 0 - 9                 | 74,8                   | 0,6         | 66,1               | 1,5         | 67,9        | 0,3         | 80,8               | 2,0         | 30,6        | 1,2         |
| ≥ 10                  | 98,1                   | -0,1        | 96,6               | 0,6         | 96,2        | 0,3         | 93,4               | 1,3         | 75,4        | 3,6         |

\* Aurreko urtearekiko aldea, ehuneko-puntuetan

Iturria: EUSTAT. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta (IGI)-Enpresak

Langileen artean hazi da baita ere teknologiek darabiltzatenean ehunekoak. Ordenagailua %64,1ek darabil; %53,8k Interneteko sarbidea du eta posta elektronikoa %55,0k.

Garrantzitsua da adieraztea ezen teknologia horiek erabiltzen dituzten enplegatuen portzentajeak kontuan hartuta, aldeak asko txikitzen direla. Izan ere, establezimendu txikiak gehiago aurreratu dute, eta handietan enplegatuen zati batek baino ez du enpresako ekipamenduak erabiltzeko aukera. Bizkaia da teknologia hauek erabiltzen dituzten enplegatuen portzentajerik handienekoa; ondoren Gipuzkoa eta Araba.

**2. taula: IKT ekipamenduak dituzten establezimenduak, lurralde eta establezimenduaren tamainaren arabera. 2010 urtea**

|                  | Ordenagailu pertsonala    |                              | Posta elektronikoa        |                              | Internet                  |                              |
|------------------|---------------------------|------------------------------|---------------------------|------------------------------|---------------------------|------------------------------|
|                  | Establezimenduak, guztira | 10 enplegatu edo gehiagokoak | Establezimenduak, guztira | 10 enplegatu edo gehiagokoak | Establezimenduak, guztira | 10 enplegatu edo gehiagokoak |
| <b>Euskal AE</b> | <b>64,1</b>               | <b>64,5</b>                  | <b>55,0</b>               | <b>56,3</b>                  | <b>53,8</b>               | <b>53,4</b>                  |
| Araba            | 63,2                      | 63,5                         | 52,9                      | 53,2                         | 49,7                      | 48,2                         |
| Bizkaia          | 64,5                      | 66,2                         | 56,0                      | 58,5                         | 55,1                      | 56,3                         |
| Gipuzkoa         | 63,9                      | 62,5                         | 54,5                      | 54,6                         | 53,7                      | 51,6                         |

Iturria: EUSTAT. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta (IGI)-Enpresak

**Euskal enpresen Interneteko sarbidea ADSL lerroen bidez egiten da nagusiki**

Interneteko sarbidea duten euskal enpresak %69,9 dira; aurreko urtearen aldean ehuneko 0,3 puntuko hazkundera. Sarea sartzeko era nagusia ADSL lerroak dira oraindik ere, %85,7; lehenengo aldiz, halere, erabilera ehuneko puntu batez murritztu da, konexio mugikorrak eta kable bidezkoak (zuntz optikoa) nabarmen hazi baitira.

Gainerako bideak erabilpen ehuneko txikiagoak dituzte. Kable bidez %23,5; konexio mugikorrekin (telefonoa, PDA, usb modema, GSM, GPRS, e.a.) %23,0; RDSI lerroez %10,5 dira; modemaren bidez %7,2 eta beste konexio finkoak %2,3.

**3. taula: Interneteko sarbidea duten establezimenduak eta sartzeko erak. (%)**

|                                     | 2010 | 2009 | 2008 | 2007 | 2006 | 2005 | 2004 | 2003 | 2002 |
|-------------------------------------|------|------|------|------|------|------|------|------|------|
| <b>Guztira</b>                      |      |      |      |      |      |      |      |      |      |
| establezimenduen %                  | 69,9 | 69,6 | 66,4 | 61,6 | 56,4 | 51,9 | 45,9 | 42,7 | 36,5 |
| Modema                              | 7,2  | 9,0  | 19,8 | 23,3 | 26,1 | 38,0 | 42,0 | 49,3 | 58,4 |
| RDSI                                | 10,5 | 7,3  | 6,2  | 8,2  | 9,2  | 10,4 | 11,6 | 15,3 | 23,1 |
| ADSL                                | 85,7 | 86,7 | 85,9 | 81,4 | 71,1 | 61,7 | 53,3 | 40,3 | 26,2 |
| (*) Kablea                          | 23,5 | 16,4 | 13,8 |      |      |      |      |      |      |
| Konexio mugikorra                   | 23,0 | 16,3 | 11,4 | 6,4  | 4,1  | 3,9  | 2,2  | 2,0  | 2,5  |
| (*) Bestelako konexio finkoak       | 2,3  | 1,9  | 1,5  | 8,2  | 6,5  | 5,2  | 3,2  | 2,8  | 2,2  |
| <b>10 enplegatu edo gehiagokoak</b> |      |      |      |      |      |      |      |      |      |
| establezimenduen %                  | 96,2 | 95,9 | 94,4 | 93,5 | 93,0 | 91,1 | 88,1 | 86,7 | 80,8 |
| Modema                              | 6,3  | 7,3  | 11,7 | 12,9 | 13,3 | 19,8 | 24,4 | 25,5 | 37,5 |
| RDSI                                | 13,8 | 10,7 | 8,7  | 14,3 | 13,7 | 14,4 | 16,8 | 25,4 | 36,2 |
| ADSL                                | 90,3 | 90,6 | 90,7 | 87,1 | 82,3 | 77,5 | 70,2 | 58,4 | 37,2 |
| (*) Kablea                          | 27,7 | 19,9 | 16,0 |      |      |      |      |      |      |
| Konexio mugikorra                   | 39,5 | 26,3 | 19,6 | 11,4 | 6,1  | 5,3  | 3,5  | 3,2  | 3,0  |
| (*) Bestelako konexio finkoak       | 6,3  | 5,5  | 2,5  | 13,4 | 11,1 | 10,1 | 7,7  | 8,0  | 6,5  |

(\*) 2008tik Kablea bereizi da

Iturria: EUSTAT. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta (IGI)-Enpresak

10 enplegatu edo gehiagoko enpresetan, %96,2k Internet dute, eta ADSL lerroak dira gehien (%90,3) erabiltzen direnak. Ondoren, urruti, konexio mugikorrak datoz (%39,5), kablea (%27,7), RDSI lerroak (%13,8), modema (%6,3) eta beste konexio finkoak (%6,3).

Enpresek erabiltzen dute Internet informazioa bilatzeko, banku- eta finantza-zerbitzuetarako eta administrazio-izapideak egiteko.

**10 enplegatu eta gehiagoko euskal enpresetatik %75,4k Web orria dute**

Enpresak gero eta jakitunagoak dira web orrien garrantziaz. Azken urtean sarean badiren enpresak guztien %33,9 dira, ehuneko 1,5 puntuz hazi ondoren; 10 enplegatu edo gehiagoko enpresen artean %75,4 da portzentajea, 3,6 puntuz hazi ondoren. Internet duten enpresak bakarrik kontuan hartuz gero, guztirakoan %48,4 dugu eta %78,4 10 enplegatu edo gehiagokoetan.


Web orrietan enpresaren beraren gaineko informazioa egoten da: produktu eta zerbitzuak, informazio pribatutasunari buruzkoa, saldu ondoko zerbitzuak, lan-eskaintzak.

Orriotako sarbide hizkuntzetan gaztelera da nagusi, %98,9; euskara ondoren, %36,7; ingelesa %28,1 eta besteren batzuk %14,0.

**10 enplegatu edo gehiagoko euskal enpresen Internet sarbidea 27EB europar batezbestekoaren gainetik da**

Nazioartean, eta jarduera eta enplegu datu homogeneousak alderatuz gero, euskal enpresetan presenteago dago Internet (%96) Europar Batasuneko gainerakoetan (%93) baino; banda zabala ere gehiago erabiltzen da (%94 eta %82).

**2. grafikoa: 10 enplegatu edo gehiagoko establezimenduak, Internetarako sarbide eta banda zabalaren erabilaren arabera. 2009 urtarrila (%)**



Iturria: EUSTAT. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta (IGI)-Enpresak.  
EUROSTAT

**10 enplegatu edo gehiagoko euskal enpresen %23,7k merkataritza elektronikoa egin du 2009. urtean.**

2009.ean euskal establezimenduen %14,9k egin du merkataritza elektronikoa; aurreko urtearen aldean 0,1 puntuko murrizketa. Zifra honetara heltzen da, nagusiki, %13,8k bide elektronikoetatik erosketak egiten dituztelako, 0,1 puntuko murrizketa dagoelarik; neurri txikiagoan salmentak ditugu, %3,4, 2008an bezalaxe.

Zifra hauek handitu egiten dira 10 enplegatu edo gehiagoko enpresetan, non sarean edo bestelako sistema elektroniko baten bidez (EDI, datu elektronikoen trukaketa) erosketak edo salmentak egiten dituztenen portzentajea %23,7 den, %1,5 hazi ondoren. Segmentu honetan ere guztirakoaren gehiena erosketak elektronikoak egiten dituztenengandik dator, %20,2, lehengo urtearen aldean %1,1 puntu hazi delarik; eta neurri txikiagoan bide berberetatik salmentak egiten dituztenengandik, %8, 2008an bezalaxe.

**Ohar metodologikoa:** INFORMAZIOAREN GIZARTEARI BURUZKO INKESTA (IGI)-Enpresak 2010eko datuak argitaratzeko, EUSTATEk **Jarduera Ekonomikoen Sailkapen Berria (JESN 2009)** erabiltzen du. IGI-enpresak inkesta arte argitaratutako datuek JESN-93 erabiltzen zuten.

Orain dibisio berriak sortu dira jarduera ekonomikoen sailkapenean, zeinak argitaratutako tauletan azaltzen diren; xehatze hauek ez dira aurreko urteetakoekin alderagarriak.

[JESN-93 eta JESn-2009](#) jarduera sailkapenak

Eustaten web orrian, datu-bankuan, 2001-2009 seriea JESN-93rekin dator eta 2010ekoak JESN-2009 berriarekin.

---

**Argibide gehiago nahi izanez gero:**

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.

Tel:+34-945-01 75 00 Faxe:+34-945-01 75 01 Posta elek.: [eustat@eustat.es](mailto:eustat@eustat.es)

Harremanetarako pertsona: Jose Miguel Escalada

Tel:+34-945-01 75 96 Faxe:+34-945-01 75 01

[EUSKAL AEko INFORMAZIOAREN GIZARTEARI BURUZKO INKESTA \(IGI\)-Enpresak inkestari](#)

[buruzko prentsa-ohar gehiago](#)

[EUSKAL AEko INFORMAZIOAREN GIZARTEARI BURUZKO INKESTA \(IGI\)-Enpresak inkestari buruzko datu-bankua](#)